Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2019

EBAZPENA, 2010eko otsailaren 25ekoa, Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendariarena, Ensatec SL izendatzen duena tenperatura kontrolatuko produktuak garraiatzeko, biltegiratzeko, banatzeko eta kontrolatzeko tenperatura-erregistragailu eta termometroen metrologia-egiaztapenerako baimendutako erakunde gisa.

Erref.: LAB-01-TER

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2010eko urtarrilaren 25ean, José Luis Martínez Asín jaunak, Ensatec SL enpresaren izenean eta haren ordezkari-lanetan (helbidea: Lentiscares Industrialdea, 4 eta 6, Navarrete, Errioxa), baimen-eskaera aurkeztu zuen Industria Administrazio eta Segurtasuneko Zuzendaritzan, azaroaren 22ko ITC/3701/2006 Aginduan aurreikusitako konponketaren edo aldaketaren ondorengo eta aldizkako egiaztapenaren ondorengo egiaztapen-saioak egiteko. Agindu horren bitartez, tenperatura kontrolatuko produktuak garraiatzeko, biltegiratzeko, banatzeko eta kontrolatzeko tenperatura-erregistragailu eta termometroen metrologia-kontrola arautzen da Estatuan.

Bigarrena.– Metrologia-egiaztapenerako baimendutako erakunde gisa izendatua izateko, erakunde eskatzaileak metrologia-egiaztapenerako baimendutako erakundeak izendatzeko azaroaren 26ko 1/2007 Zuzentarauan ezarritako baldintzak bete beharko ditu. Horretarako, Egiaztapeneko Erakunde Nazionalaren (ENAC) OC-I/164 Egiaztapen Ziurtagiria aurkeztu da, 2009-11-20ko eranskin teknikoarekin, 0.5, 1 eta 2 Klaseko termometroekin eta 1 eta 2 Klaseko tenperatura-erregistragailuekin (-30 ºC-tik + 70 ºC-ra) batera; hori dela-eta, eskatutako esleipena behin betiko egitea bidezkoa da.

Espediente honi ebazpena ematerakoan, beharrezkoa izango da honako hauek kontuan hartzea,

OINARRI JURIDIKOAK

1.– EAEko metrologia-kontrola gauzatzeko bitartekoak ezartzen dituen 38/2001 Dekretuaren 11. artikuluak zehazten duenez, industria-arloko erakunde eskudunak metrologia-egiaztapenerako erakundeak gaitu ahal izango ditu konponketaren edo aldaketaren ondorengo egiaztapenak eta aldizkako egiaztapenak egiteko.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

2019

RESOLUCIÓN de 25 de febrero de 2010, de la Directora de Administración y Seguridad Industrial, por la que se designa a Ensatec, S.L. como organismo autorizado de verificación metrológica de registradores de temperatura y termómetros para el transporte, almacenamiento, distribución y control de productos a temperatura controlada.

Ref.: LAB-01-TER.

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.– Con fecha 25 de enero de 2010, D. José Luis Martínez Asín, en nombre y representación de la empresa Ensatec, S.L., con domicilio en el Polígono Lentiscares, 4 y 6, de Navarrete, La Rioja, ha presentado en esta Dirección de Administración y Seguridad Industrial solicitud de autorización para realizar los ensayos de verificación después de reparación o modificación y de verificación periódica prevista en la Orden ITC/3701/2006, de 22 de noviembre, por la que se regula el control metrológico del estado de registradores de temperatura y termómetros para el transporte, almacenamiento, distribución y control de productos a temperatura controlada.

Segundo.– Para la designación como organismo autorizado de verificación metrológica, la entidad solicitante deberá cumplir con los requisitos establecidos por la Directriz 1/2007, de 26 de noviembre, para la designación de organismos autorizados de verificación metrológica. A tal efecto, se ha presentado Certificado de Acreditación OC-I/164 emitido por ENAC, acompañado del anexo técnico, de fecha 20-11-2009, termómetros de Clase 0.5, 1 y 2, así como registradores de temperatura de Clase 1 y 2, -30 a +70 ºC, por lo que procede efectuar la designación solicitada, con carácter definitivo.

Para la resolución de este expediente es preciso tener en cuenta los siguientes

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

1.– El artículo 11 del Decreto 38/2001, por el que se establecen los medios para la ejecución del control metrológico en la CAPV, especifica que el órgano competente en materia de industria podrá habilitar a entidades de verificación metrológica para el desempeño de las funciones de verificación después de reparación o modificación y de verificación periódica.

2.– Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuaren (2009-09-24ko EHAA) 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, Industria Administrazio eta Segurtasuneko Zuzendaritza da Ebazpen hau hartzeko organo eskuduna.

3.– Neurketa-tresnen metrologia-kontrola arautzen duen oinarrizko legedia honako hauek osatzen dute: ekainaren 28ko 1296/1986 Legegintzako Errege Dekretuak aldatutako metrologiako 3/1985 Legeak, abenduaren 30eko 13/1996 Legea eta abenduaren 30eko 66/1997 Legeak, neurketa-tresnen gaineko Estatuko metrologia-kontrola arautzen duen uztailaren 21eko 889/2006 Errege Dekretuak, eta jada adierazitako azaroaren 26ko 1/2007 Zuzentarauak.

4.– Azaroaren 22ko ITC/3701/2006 Agindua, tenperatura kontrolatuko produktuak garraiatzeko, biltegiratzeko, banatzeko eta kontrolatzeko tenperatura-erregistragailu eta termometroen metrologia-kontrola arautzen duena.

Aurreko legezko arauak eta ezarri beharreko gainerako xedapen orokorrak ikusita, eta Industria Zerbitzuko buruak proposatuta, honako hau

EBATZI DUT:

1.– Ensatec SL (helbidea: Lentiscares Industrialdea, 4 eta 6, Navarrete, Errioxa) izendatzea tenperatura kontrolatuko produktuak garraiatzeko, biltegiratzeko, banatzeko eta kontrolatzeko tenperatura-erregistragailu eta termometroen metrologia-egiaztapenerako baimendutako erakunde gisa. Izendapenaren irismena ENAC erakundeak PE-ENAC-OC/01 dokumentuan eta ondorengo aldaketetan oinarrituta emandako ziurtagirian bildutako tresnetan oinarritzen da, 0.5, 1 eta 2 Klaseko termometroekin eta 1 eta 2 Klaseko tenperatura-erregistragailuekin (-30 ºC-tik +70 ºC-ra) batera.

2.– Honako baldintza hauek inposatzea ematen den baimenari:

– Jardun-eremuak Euskal Autonomia Erkidegoko tresnak biltzen ditu.

– Tresnak saioak gainditzen dituenean, erakundeak egiaztapen burutuaren etiketa jarriko dio. Gainditzen ez baditu, zerbitzurako ez-gaitasuneko etiketa gorria jarriko dio. Hori guztia uztailaren 21eko 889/2006 Errege Dekretuaren I. eranskinarekin bat etorriz, eta egiaztapena gainditu ez duen tresnari dagokion Lurralde Ordezkaritzari lehenbailehen jakinarazita.

– Dagokion egiaztapena egin ondoren, Ensatec SL erakundeak tresna zigilatuko du zigiluen bitartez edo,

2.– La Dirección de Administración y Seguridad Industrial es el órgano competente para la adopción de la presente Resolución en virtud de los establecido en el artículo 14 del Decreto 514/2009, de 22 de septiembre (BOPV de 24-09-2009), por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo.

3.– La legislación básica reguladora del control metrológico de los instrumentos de medida está constituida por la Ley 3/1985, de Metrología, modificada por Real Decreto Legislativo 1296/1986, de 28 de junio, Ley 13/1996, de 30 de diciembre y Ley 66/1997, de 30 de diciembre, el Real Decreto 889/2006, de 21 de julio, por el que se regula el control metrológico del Estado sobre instrumentos de medida y la citada Directriz 1/2007 de 26 de noviembre.

4.– La Orden ITC/3701/2006, de 22 de noviembre, por la que se regula el control metrológico del Estado de registradores de temperatura y termómetros para el transporte, almacenamiento, distribución y control de productos a temperatura controlada.

Vistos los preceptos legales citados y demás disposiciones de general y concordante aplicación, y a propuesta del Jefe de Servicio de Industria,

RESUELVO:

1.– Designar a Ensatec, S.L., con domicilio en el Polígono Lentiscares, 4 y 6, Navarrete de la Rioja, como organismo autorizado de verificación metrológica de registradores de temperatura y termómetros para el transporte, almacenamiento, distribución y control de productos a temperatura controlada. El alcance de esta designación se extiende a los instrumentos incluidos en la acreditación emitida por ENAC en base al documento PE-ENAC-OC/01 y sus sucesivas modificaciones, con los termómetros de Clase 0.5, 1 y 2, así como registradores de temperatura de Clase 1 y 2, -30 a +70 ºC.

2.– Imponer las siguientes condiciones a la autorización que se concede:

– El ámbito de actuación comprende los instrumentos existentes en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

– Cuando el instrumento supere los ensayos, la entidad le adherirá la etiqueta de verificación cumplimentada. Caso de no superación, le adherirá la etiqueta roja de inhabilitación para el servicio. Todo ello de acuerdo al anexo I del RD 889/2006, de 21 de julio, y con la notificación inmediata a la Delegación Territorial donde radique el instrumento que no haya superado la verificación.

– Efectuada la verificación de que se trate, Ensatec, S.L. precintará el instrumento mediante precintos

ahal bada eta bortxaezintasuna bermatzen bada, etiketa itsaskor auto-suntsigarrien bitartez.

Kasu guztietan, zigiluek honako inskripzio hauek izango dituzte:

o, si ello es posible y se garantiza la inviolabilidad, mediante etiquetas adhesivas auto destructibles.

En todos los casos los precintos llevarán las siguientes inscripciones:

Plastikozko zigilua



Precinto de plástico



XX egiaztapena egin den urtearen azken bi zenbakiei dagokie.

3.– Ensatec SL enpresak baimendutako entseguei dagozkien tarifen berri urtero emango dio Zuzendaritza honi.

4.– EAEn baimenduta dauden erakundeen erregistroari dagokionez, Ensatec SL enpresari 01-OV-1011 zenbakia esleitu zaio.

5.– Ensatec SL erakundeak une oro honako hauetan ezarritako baldintzak bete beharko ditu: uztailaren 21eko 889/2006 Errege Dekretuan (neurketa-tresnei dagokienez Estatuko kontrol metrologikoa arautzen du), azaroaren 22ko ITC/3701/2006 Aginduan, Industria Idazkaritza Nagusiaren 2007ko azaroaren 29ko Ebazpenean eta Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Industria Administrazio eta Segurtasuneko Zuzendaritzak ezarri dezakeen beste edozein xedapenetan.

XX corresponde a los dos dígitos finales del año en que se realiza la verificación.

3.– Ensatec, S.L. comunicará anualmente a esta Dirección las tarifas que establezca para los ensayos que se autorizan.

4.– A efectos del registro de organismos autorizados de la CAPV, se asigna el n.º 01-OV-1011 a Ensatec, S.L.

5.– La entidad Ensatec, S.L. estará sometida en todo momento con lo que disponen el Real Decreto 889/2006, de 21 de julio, por el que se regula el control metrológico del Estado sobre los instrumentos de medida, Orden ITC/3701/2006, de 22 de noviembre y la resolución de 29 de noviembre de 2007, de la Secretaría General de Industria, así como también cualquier otra disposición que establezca la Dirección de Administración y Seguridad Industrial del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco.

6.– Izendapenak bost urteko iraunaldia izango du, eta izendapena berritzeko eskabidea iraunaldiaren amaierarekiko hiru hilabeteko aurrerapenarekin aurkeztuta berritu ahal izango da.

7.– Izendatutako erakundearen jardunen gainean ikuskatu, esku hartu eta kontrolatzeko eskumena Industria Administrazio eta Segurtasuneko Zuzendaritzari dagokio. Horretaz gain, baimena lortzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko ikuskapenak egin ahal izango dituzte.

8.– Aurkeztutako dokumentuetan ebazpen honen ondoren gertatutako edozein aldaketa Industria Administrazio eta Segurtasuneko Zuzendaritzari jakinarazi beharko zaio, eta baimena berretsi edo, hala badagokio, baliogabetu ahal izango du.

9.– Indarreko legedian aurreikusitakoez gain, baimen hau baliogabetzeko kausak izango dira baimenean ezarritako aginduak ez betetzea, ziurtagiria etetea edo kentzea, eta baimena eman deneko zirkunstantziak nabarmen aldatzea.

Ebazpenak ez du administrazio-bidea agortzen, eta haren aurka Gora jotzeko Errekurtsoa jar daiteke Industria eta Energia Sailburuordetzan, hilabeteko epearen barruan, Ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean ezarritakoari jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko otsailaren 25a.

Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendaria,
YOLANDA LÓPEZ FERNÁNDEZ.

6.– Esta designación tendrá un plazo de validez de cinco años renovables previa presentación, tres meses antes de la caducidad de la misma, de una solicitud de renovación de la designación.

7.– La competencia para efectuar la inspección, intervención y control de las actuaciones realizadas por el organismo designado corresponde a la Dirección de Administración y Seguridad Industrial. Además, podrán realizar inspecciones para comprobar el mantenimiento de los requisitos que dieron origen a esta autorización.

8.– Cualquier modificación o cambio en las circunstancias acreditadas en los documentos presentados sobrevenidos con posterioridad a la presente Resolución deberán ser notificados a la Dirección de Administración y Seguridad Industrial, que ratificará la autorización o podrá cancelarla en su caso.

9.– Son causas de cancelación de la presente autorización, además de los previstos en la legislación vigente, el incumplimiento de las prescripciones establecidas en la misma, la suspensión o revocación de la acreditación, así como la variación sustancial de las circunstancias en que ha sido otorgada.

Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso de alzada ante la Viceconsejería de Industria y Energía, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de notificación de esta Resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999 de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de febrero de 2010.

La Directora de Administración y Seguridad Industrial,
YOLANDA LÓPEZ FERNÁNDEZ.